



2.004

LEITZA

2004





PLAZAOLAKO ALDIZKARIA

2004ko Plazaola aldizkarirako azalaren lehiaketan parte hartu dutenak honako hauek dira

- Koldo Fagoaga
- Julen Bergara
- Maite Biurrarena
- Aitor Zabaleta

Eta gazte lehiaketan berriz:

- Lierni Sestorain
- Mikel Alkoz

Irabazle izan den Julen Bergara ez eze, beste guztiei ere ZORIONAK eta jarraitu margotzen!!

agurra

Kaixo, herritarrok:

Agur labur honetan, besterik gabe, gure aldetik pesta zoriontsuak opa dizkizuegu. Pesta garaian hitzak eta idatziak ez dira garrantzisuenak, eta alaitasunari eta umoreari lehentasuna uzten diete.

Benetako protagonistak zuek zarete; gu, gure aldetik, salatu gara urteroro bezela egitarau duin eta erakargarria prestatzen.

Besterik gabe zuek denek parte hartzea espero dugula adierazi nahi dizuegu, pestak ongi pasatzeko direlako, errespetuz eta giro onean.

Bukatu baino lehen, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu pestak aurrera atera ahal izateko parte hartu duzuen edo parte hartuko duzuen guziet, bereziki abuztuaren 10etik 15era lanean arituko zareten udal langileei.

Eskerrik beroenak ere Plazaola aldizkarian idatzi dutenei, egitarau banaketan dirua ematen dutenei eta iragarkiak jarri dituzten babesle guziet.

**GORA TIBURTZIO DONEAREN PESTAK !
GORA LEITZAI**



LEITZAKO UDALA eta AURRERA K.E.-ak

PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE herritar eta bisitari guztiei.

LEITZAKO UDALA:



012 ZURE TELEFONOA.


LEITZAKO JAIK 2004

abuztuak 7 larunbata

EGITARAU BANAKETA

16:00etan kalez kale **PLAZAOLA** aldizkariaren banaketa egingo da trikitilari, ziztulari, soinulari eta animatzen dien guztik lagunduta.

19:00tan Jeiki koralaren eskutik "Salve de Eslava" entzuteko aukera paregabea elizen



San Tiburtzioak iristeko aurpegiak alaituko dituzue ezta?
la gaur kajak betetzen diren

abuztuak 8 Igandea

U M E E N E G U N A

8:00tan Diana

10:00etan Txirrindulari eskolakoak industrialdean ibiliko die.

10:30tan Meza Nagusia **Korporazio Ttikiaren** agintaritzan eta ondoren txupinazo ttikia.

11:30tan Umentzat pesta plazan:

- **Pilota** eskolakoen pilota partiduak
- **Jokoak:** zaku-saltoa, soskop biltzea...
- **Puzgarriak:** goizez (11:30tatik 14:30tara) eta arratsaldez (16:30etatik 18:30tara)

16:00etan Umentzako **HERRI KIROLAK** plazan aurreneko aldiz

18:30tan AURRERAKO Dantzari Ttikien saio bikaine plazan

20:00tatik 24:00etara

TRIKIDANTZ

taldearekin
dantzaldie plazan
(tartean
atsedenaldia
izanen da)



Ái ai... zenbat
arraultze eroriko die lurrera?



Ze gorra den
aslelanekin
dantza ittea
eh? Hala ere
earki itten

abuztuak 10 asteartea

P E S T A B E Z P E R A

11:00tan Koadrilen arteko **Herri Kirolak** plazan.

14:30tan Kirolarien eta jubilatuen **bazkariak**.

18:00tan Pestei hasiera emanez, beti bezela udaletxetik txupinazoa botako da.
GORA SAN TIBURTZIOOOOOOOOOOOOO!

ondoren **Plazaola** aldizkariko azalaren irabazleari **sari ematea**.

eta gero **INCANSABLES** txarangak, txistularik, giteroak eta **BURUHAUNDIAK** herriko txokoak animatuko dittue nahiko dantza eta laisterkaldik egiteko aukera emanez.

22:00tan **Suzko Zezena** plazatik atera eta betiko ibilbidean zehar

00:00tan **LAIOTZ** musika taldearekin plazan dantzatzeko aukera ederra.



Eutsi mutilek!
Bestela
eraman ingo
zattuel



abuztuak 11 asteazkena

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

8:00tan Diana.

9:00tan Entzierroa eta zezenak plazan.

10:30tan Meza Nagusi kantatue udal ordezkari eta ezpatadantzarikin.

12:00tan Urteroko legez, **EZPATADANTZA** saio bikaina eskeiniko digute Aurrerako dantzariak.


jarraian Pilota partiduak.
BENGOETXEA - MINTEGI
AZPIROZ - TIRAPU

18:00tan Zezenak plazan.


19:00tan **HERRI KIROLAK** plazan.
Aizkoran errebantxa: OLANO ANAIAK-
REKONDO eta RIAÑO-ren aurka.
Harri jasotzen berriz; IÑAXIO PERURENA
eta AIMAR IRIGOIEN

22:00tan Suzko Zezena keia dariola.

00:00tan GAUBELA taldearen doinuekin dantzaldia plazan.



AUPA INAXIO, EUTSI
HARRIRI, IEPAI
URTEAK AUERRERA
DIZTEA



EZETZ
DENAK
BATERA
LURRE
UKITTU

abuztuak 12 osteguna

PESTA BIGARRENA

- 8:00tan** Diana goiz goizetik animoso hasteko egune.
- 9:00tan** Entzierroa eta behiek plazan ikusi nahi dittuenantz.
- 11:30tan** Sukaldari dien edo sentitzen dien guztientzat **paella lehiaketa** (ikus oharretan)
- 12:00tan **Lizarrako jota eskolakoek** eguerdiarte alaituko digute berain kantuekin.
- 18:00tan** Behiak plazan
- 19:00tan** Urteroko legez, **AURRERAKO** Dantzarien ikuskizun paregabea.
- 22:00tan** **Suzko Zezenan** aurretik, atzetik edo ingurun laiterkaldie.
- 00:00tan** **TRAKETS** taldearekin gozatzeko unea.



ARDOA, ALFERRI
GALDU EGIN
BEHAR DA EHI TIRA

UMMMMM!
HORI DA
PAELLA
GOXOA HORII!

abuztuak 13 ostirala

PESTA HIRUGARRENA

8:00tan Diana.

9:00tan Entzierroa eta zezenak; beti bezela plazan, eskapatzen ez badie behintzat!

11:30tan Pilota partiduak plazan IRIARTE/NARBARTE - APEZEXETA/BELOKI
OLAZABAL/BIÑARAS - URTXIPIA/ELIZALDE

16:00tan TOP EUSKARAOKEA kantatzeko prest daon guztintzat plazan

18:00tan Behiak plazan.


19:00tan Bertsolariak:

- Andoni Egaña
- Jon Maia
- Jexux Mari Irazu
- Sustrai Kolina


Aurten gaijartzaileak Leitzeko bertso eskolakoak izanen dira.

22:00tan Suzko Zezena txinpartak dariola.

00:00tan IZOTZ taldearekin dantza saioa,.



SUSTRAI ZORTZIKO
TXIKIAN. 3 BERTSO,
GAIA: PEÑAK
ARAZOAK DITU
SUDURREKO
APOPILOEKIN




GOIZEKO 9AK ETA
ZUEK LAISTERKA,
BEJONDEIZUELA

abuztuak 14 larunbata

PESTA LAUGARRENA

- 8:00tan** Diana.
- 9:00tan** Entzierroa eta behiak plazan.
- 12:00tan** Valtierrako bandaren kalejira eta ondoren kontzertue plazan
- 18:00tan** Zezenak betiko tokin.
- 19:00tan** Incansables txaranga plazan
- 20:00tan** Los Garibaldi mariatxiarekin kalejira herrian zehar
- 22:00tan** Suzko Zezena plazatik hasita.
- 00:00tan** **LOS GARIBALDI** mariatxiarekin mejikanak dantzatzeko aukera
paregabea
Eta ondoren **DISKO TOP** (klase guztietako musika)



abuztuak 15 igandea

BIKOTE ETA EZKONDUEN EGUNA

8:00tan Diana.

9:00tan Entzierroa eta zezenak;
ezkonduentzat, bikoteentzat
eta nahi duenarentzat.

12:00tan Herri Kirolak:

- **Iparraldeko jokoak**
ANDRES ARBENOIZ-ekin

- **Harri jasotzailea:**

Joseba Ostolaza

- **Haizkolarik:** Miguel Iturrarte
(Leitzen indako haizkorakin)

18:00tan Bikote eta ezkonduen **entzierroa**
eta **behiak** plazan.

19:00tan Bikoteen **Ingurutxoa.**

22:00tan Azkeneko aldiz, **Suzko Zezena**

00:00tan LOS COMPADRES

ondoren PESTEN BUKAERA. Labetxeko atarian hasi eta buka.OHHHH!



A ZE TXITXEK I ETA
AURTEN... ZER, ZEIN,
NOLA...?

LASAI NESKAKI GUTXIO FALTA DA 2005EKO PESTETAKO ETA!



Ateraldiak

IGEL APUSTUE

Lehenago Santio egunen Arkixkilgo pesta egiten zen Estazioan. Aizkorapustue izaten zen eta gero soñue dantzarako. Yende asko biltzen zen eta pesta politte izaten zen.

Urte baten zerbait berezia egin behar zute-la eta Exkibarre yoan eta igel mordoska harrapatu zuten eta Estaziora ekarri igel apustue yokatzeko.

Hau da: karretillen patu igela eta zeñek lehenago eraman erabakitako tokiraño. Yakiñe, igelak salto abudo egiten do eta igela harrapatu eta berriz atzea karretillera ekarri bahar. Segi hola allatu arte. Eta aurrena allatzen denak irabazi.



Piñu asko ihartu zen orduan izoztuta. Astaitzagan pikoia ihartu zen eta intxaurre ere muarratu behar izandu giñun adarrak ihartu zitzaizkiolako.

Seguruaski hogeigarren mendean egin zituen hotzik haundienak izanen ziren. Yoantzarko attunak, Praxkuk, esaten zuen lehen ere ezagutu zituela holako hotzak.

Errezumen garealdea dagoen errekaziztorra dena kollatue ezagutu omen zun baño haiek hemeretzigarren mendearen bukaeran ziren.

Nonnahi baziren patinaje artistikoan ibiltzeko moduko kollek. Horietako baten aurreran batek esan zuen: "Bai ederki dagoela hau gaben Peustenetik estera heldu diren moskorak irrixtatu eta erortzeko."

Hurrengo egunean hau esan zuena bera kolle hortan irrixtatu eta bide luzean yoan zen arrastan eta buruan eundimunduko ebakie egin zuen. Hamalau puntu eman zizkion medikuk. Burua dena bendatu eta kabezudoa zirudien.

Peustenen bazekiten zer esan zuen eta "kongresoko" kide batek esan zion medikutetik burua bendatuta zetorren "kabezudo" honi:

"Ederki zeok bai gaben estera dizen moskorak erortzeko."

DENA BASITTUE ETA BERGIZENDUE

Joakin Maria nahiean ibili zen denbora askoan baina ez zuen lortu. Gero Maria Luisekin ezkondu zen.

Leitzeko pestetan han zeuden plazan Luis eta Maria. Miel zirikatzaile amorratue ere han zegoen ongi bazkaldu eta umore onen. Joakin berriz tripek yaten Maria bere senarraren ondoan ikusita.

Miel.- Luis huxe gizon ederra dau, sendo-sendoa. Hori lepezakie dauke.

Joakin.- Ba!, dena basittue dau. Ba!, dena bergizendue dau.

MOSKORRAK ERORTZEKO KOLLE

1956-ko otsailean hotz ikaragarriak egin situen. Hil guzia, hasi eta buka, dena elurretan yoan zen. Etxeetan leihoetako kristalak izoztuak egon ziren, sukaldekoak izan ezik. Ateetako hiltzeburuak barrendik zuri zuri egondu ziren. Kollezintzarri ekusgarraik nonnahi.

Gogoeta txikiak, alfabetoan jarriak

Autoak: Leitzako kaleetako erregeak. Berdin dio kale zabala, kale estua, estarta... Leitzako kaleetan autoak dira nagusi, haiena da espazioa: asfaltoa, espaloi-bazterra, espaloia bera, kalea ezker-eskuin... Etxe guztietan bizpahiru auto baitaude, ia oinezkoak adina. Nonahi gabiltzala, beti erne egoten gara ea autoren bat heldu den, ez baitira gutxi herrian barna ziztu bizian dabiltzanak, ez-dakit-zer-ez-dakit-nori erakusteko, herriko irteerara bost segundo lehenago iristeko.



Bizitasuna: Leitzak galdu behar ez lukeena. Baina herri baten bizitasuna ez da zerutik erortzen; herritarrek ematen diote bizia herriari, gauzak eginda, etxezuloatik aterata, norberaren mundu eta planeta txikia gaindituz.

Cromlech: baditugu Leitzan cromlech edo harrespilak, baita trikuharriak ere. Gainera, deus berririk aurkituko ez zela pentsatzen genuen garai honetan, ezagutzen ez genituen trikuharriak agertzen ari dira Leitzan, han eta hemen. Nork eraiki ote zituen? Noiz? Duela 3.000 urte? 4.000, akaso? Haiek ote ziren lehendabiziko leitzarrak, Leitza oraindik existitzen ez zen garaian? Zein ote da aspaldi batean inguruotan ibili zirenekin lotzen gaituen haria?

Drogak: gure artean egon dira, daude eta egonen dira. Eta? Hor al dago arazoa? Drogetan? Ez, noski, geure buruan dago arazoa. Guk dugu arazoa, ez drogek. Eta hortik hasi beharko genuke. Ez dakigu drogak erabiltzen? Ikas dezagun. Ez dugu informazio onik? Ongi informa gaitezten. Arazo pertsonalak ditugu? Drogak ez ditu konpontzen, aldi baterako gorde baizik, eta, askotan, okertu; konpon ditzagun gure arazoak aurrena, eta erabil ditzagun —edo ez, aukeran—, drogak ondoren.

Etorkizuna: Leitzaren etorkizuna zein da? Denon artean erabaki eta lantzen duguna. Ziur asko, mereziko duguna izanen da, gure esku baitago honelakoa edo halakoa izatea. Etorkizuna ez dago idatzita, egunero idatzi behar da, idatzi behar dugu.

Fitxa: inoiz galdetu al diozu zeure buruari fitxatuta ote zauden? Nork, nola, zergatik eta zertarako fitxatu zaituzten? Zer dakite zutaz? Zer jartzen du zure fitxan? Ez ahaztu anai handiaren garaian bizi garela, baina ez ahaztu ez dugula horrekin obsesionatu behar.

Gogoratzea: gauzak azkar ahazten ditugu; baina garrantzitsua da gogoratzea, nor garen eta zer garen jakiteko.

Hizkuntza: gurea, hemengoa, euskara da. Hala ere, gure artean erdaraz egiten dugu sarritan. Nork galarazten ote digu kalean, lagunartean, gure etxean euskaraz egitea? Miguel Sanzek? Ez, noski. Gauza asko debekatu eta galarazi dizkigu, baina oraingoz ez da horrai-



"Leitzeko Ingurutxoak"

Leitza, ondare kultural baliotsuen jabe da eta zalantzarik gabe, "Leitzeko Ingurutxoak" handienetakoa dugu. Garai batean, inguruko herri askotan dantzatzen zen "Ingurutxoak", dena dela, hauetako asko galdu egin dira eta kasu batzuetan agureen ahoetan mantentzen badira ere nekez berreskura litezke.

Zorionez, "Leitzeko Ingurutxoak" gaur egun arte bizirik iraun du, nahiz eta momentu hobeak eta txarragoak izan dituen. Beste gauza askok bezala, urteen poderioz, gure ingurutxoak hainbat aldaketa jasan ditu, bai janzkera aldetik eta neurri txikiagoan bada ere, baita musikan eta dantzatzeko eran ere.

Gai hauek aztertu informazioa bildu eta dantza bikain honi dagokion lekua emateko asmoz, herriko lagun talde bat, txistulariak aurrena, eta dantzariak ondoren, lanean hasi zen. Horrela urte mordoak zeukaten "Ingurutxoko" partitura zaharrak bildu zirèn, eta hauek eta gaur egungoen artean zeuden ezberdintasunak aztertzen hasi zen. Halaber, "Ingurutxoak" dantzatzeko modua, musika eta batez ere janzkera zein zen ere ikertzeari ekin zitzaion.

IKERKETAREN LEHEN EMAITZAK

Ziurrenik, garai batean, "Ingurutxoak", jendearekin erlazionatzeko, alegia, harreman sozialak estutzeko tresna garrantzitsuak ziren.

Aurkitutako dokumentuen arabera "Leitzeko Ingurutxoak", 1900. urterako dantzatzen zen. Inongo zalantzarik gabe ordea, askoz lehenagotik ere dantzatzen zen, baina garai haietako dokumenturik ez da aurkitu.

Janzkerari dagokionez, eta kultur astean burututako mahai inguruan baieztatu ahal izan zenez, urteetan zehar aldaketa ugari eman dira "Ingurutxoak" dantzatzeko jantzie-tan. Antzeko zerbait gertatu da dantza pausue-

kin ere. Izan ere, dantza belaunaldiz belaunaldi irakasle batetik bestera igaro da eta dantza gipuzkoarretan ez bezala, azalpen idatzirik edo filmaziorik ez da ia egin izan. Dena dela, Hilario Olazararen fraide eta musika egile ezagunak idatzirik liburu oso lagungarri izan da "Ingurutxoari" buruzko informazioa biltzeko.

"Ingurutxo, danza baska popular de Leiza (Nabarra)" Hilario Olazararen-en liburuak

Aipaturiko liburuak, Leitzeko liburutegian aurkitzen da idazlearen agur eta guzti. "Ingurutxo, danza baska popular de Leiza (Nabarra)" du izenburu eta Hilario Olazararen de Estellak idatzia izan zen. Bertan, 1926. urteko "Ingurutxoaren" musika eta pausoak bildu zituen, eta gure dantzari lore ederrak bota zizkion: "Bere soinua kantitate eta kalitateagatik, koreografi barietateagatik eta bere proportzioagatik, euskal folkloreko bikote dantza garrantzitsuentzat har daiteke Leitzako Ingurutxoak."

Badira ordea, beste aipamen asko eta berriagoak "Leitzeko Ingurutxoari" buruzkoak, hala nola, Mikel Aranburu Urtasunek, "Danzas y bailes de Navarra" liburuan, "Leitza, capital del país del Ingurutxo" izenburuarekin aurkeztuz, segidan adierazten den bezala definitzen du.

"...puede considerarse como la más representativa de las decenas de danzas sociales de esta especie, que animaron las tardes de fiesta de los pueblos de la Navarra húmeda,..."

INGURUTXOAREN MELODIAK

Olazararen 1926. urtean etorri zen Leitzara eta garai hartako Ebaristo Elduaien txistulari sonatuari jaso zizkion melodiak. Hainbat aldiz jo zizkion doinuak Ebaristok eta Olazararek partituretan hauek jaso. Olazararek pianorako idatzi zituen, eta hauek dira liburuak dakar-

kien partiturak. Olazaranek 1. ahotsa soilik jaso zion, ondoren pianorako idatzi zituen partituretan bigarren ahotsa erantsiz. Azkenik dena osatutakoan, 1931. urtean argitaratu zuen lan hau.

Gaur egun ezagutzen eta jotzen den "Ingurutxo", belarriz ikasia da Anjel Alduntzini, berak bere aurrekoei (Ebaristo Elduaie eta Miel Antonio Barriola, "Pastaini") ikasi zien bezala. XVIII. mendean ere baziren txistulariak (Abadiano, Berrio, Sarralde, Legarrea, Urrutia,...) eta pentsatzekoa da ondorengoek hauengandik eta belarriz jaso zituztela "Ingurutxoko" doinuak.

Txistulari bakoitzak bere berezitasunak emanen zizkion seguru asko. Anjelek Ebaristorekin eta Pastainekin ikasi zuen, baina 50 urtez bakarrik jo zuen eta zalantzarik gabe bere airea emanen zion, nahiz aldaketa handirik ez egin.

Migel Sagaseta apezak jaso zizkion melodia hauek, Anjel zenari eta Txistulari aldizkarian (153. Alea, 1993) argitaratu. Garai hartako hainbat grabazio ere badaude.

Orain jotzen diren melodiak "normalizatuak", betikoak dira, ezagunenak. Beste batzuk ere ordea, ezagunak dira baina soilik momentu "bereziatan" jotzen dira hauek.

Gaur egun "Leitzeko Ingurutxo" bi ahotsetan jotzen da, eta lehenengo ahotsa, lehen esan bezala, Anjel Alduntzini ikasia da. Aldiz, bigarren ahotsa gaur egungo txistularien lana izan da.

Gaur egungo txistulariek jotzen dituzten melodiak ere, belarriz ikasitakoak dira eta Olazaranen liburuan jasota dauden melodien antza handia dute. Dantza emanaldietan jotzen diren doinuak Olazaranen liburukoak baino urriagoak dira kantitatez, baina aipatutako liburuko melodia gehiago ere ezagunak dituzte. Angelek, melodia hauek dantza taldeen "Ingurutxoko" emanaldietatik kanpo jotzen zituen.

Bestalde, badira letra zuten hainbat melodia, hala nola "Aresoarren Bandera" deritzona eta berau 5. belauntzikoa omen zena, baina

ezin jakin "Ingurutxoko" melodiari letra jarri zioten edo bertso doinu hura "Ingurutxoan" jotzen hasi ote zen.

Aldi berean, Olazaran, musikaz gain, dantzatzeko eraz ere jabetu zen eta baita hainbat pauso ere zehatz-mehatz azaldu.

INGURUTXOA DANTZATZEKO ERA

"Ingurutxoaren" doinuekin gertatu den bezala, dantzatzeko erarekin ere antzeko zer-bait gertatu da. Belaunaldiz belaunaldi, irakasle eta ikasle batzuetatik besteetara igaro da eta ez da inoiz finkatutako molderik erabili. Pentsa daitekeen bezala, irakasle bakoitzak bere kutsua emanen zion eta noski, urteak pasa ahala, dantzatzeko era aldatu egin da. Oinarrian dantza bera da, eta dantza zatiak ere berdinak dira, baina pausu bakoitzaren forma aldatu da, eta baita pauso hauek errepikatzen diren aldia ere.

Garai batean, harremanak sortu eta handitzeko erabiltzen zenez, ez zen gaur egun bezala, eskuak goian eta tente-tente dantzatzeko, baizik eta modu lasaiagoan eta maiz asko elkarrengana biratuz eta gorteiatzeko keinuak eginez.

Beste aldaketa bat "inguru-txikia" dantzatzekoan gertatu da, gaur egun hanka puntetan dantzatzeko baita eta Olazaranek dioenez, garai hartan hankak arrastan eramaten zituzten. Halaber, belauntzikokoan ere ezberdintasun nabarmenak daude. Izan ere, garai batean hirugarren zatian, hankak belaunak bilduta gurutzatzen zituzten saltoan, modu honetako bi salto eginez eta gaur egun, hiru pausuz osatua dago. Gainera, gaur egun hankak bildu gabe gurutzatzen dira eta bigarren pausuan, lurrean elkartzen dira bi hankak.

1926. urtean, gaur egun bezalaxe, "Ingurutxo" jota eta arin-arina dantzatu ondoren, biribilketa batekin amaitzen zen, baina Olazaranek dioenez, antzina, "ingururtxikiarekin" amaitzen zen dantza. Gizon honen ustez jota eta arin-arina, kanpotik sartutako "kutsu txar" bat zen, eta bere iritzi ez lirateke dantzatu behar.

LEITZAKO JAIK 2004

INGURUTXOA DANTZATZEKO JANTZIAK

Hilario Olazaranen liburuan, garai hartako zenbait argazki ageri dira, eta dantza taldea, ordurako unformatuta, alegia, denak berdintsu jantzita ikus dezakegu (baliteke, herriko komentuaren eraginez edo). Baina garai batean, "Ingurutxoa" ez zen ikuskizun gisa dantzatzen, baizik eta herritarren artean festa egunean erlazionatzeko eta gozatzeko. Aurrez prestatu gabe eta nahi zuenak dantzatzen zuen eta noski, bakoitzak momentuan zeukan jantziarekin, hots, "kalera" irteten zen jantziarekin.

Gaur egun erabiltzen diren jantziak egoikiak ez direla ikusirik, dantza taldeak 1.900 eta 1.915 urte bitarteko Leitzarrek erabiltzen zituzten jantziak hartzea erabaki zuen.

Helburua finkatu ondoren, dokumentuen bila hasi zen, horretarako argazki bilketa baterako deia eginez. Hainbat argazki bildu ziren, eta Euskal Herriko dantzetan aditua den Ramón Garciaren laguntzarekin, garai hartako jantziak ahalik eta txukunen osatzen saiatu zen.

MILA ESKER, LEITZA

Hortaz, Leitzako dantzari taldeak "Ingurutzorako" jantzi horiek egin ahal izateko, herritarren artean dirua eskatzea erabaki zuen eta kultur astearekin batera, maiatzaren 29-an egin zen. Gure helburuak betetzeko, 13-15 neska-mutilen jantziak egiteko alegia, 5000€ inguru behar genituen eta herri honetako borondate oneko jendeari esker, egun hartan 3500€ bildu ziren. Kopuru honek posible egiten zuen jantziak egiten hastea, eta hortaz, okerrik ez bada 2004-ko festetan "Leitzako Ingurutxoa" leitzarrek 1900-1915 aldera erabiltzen zituzten gisako jantziekin dantzatuko da.

Beraz, bihotz-bihotzez Leitza bere dantza kuttuna zaintzeko erakutsi duen borondatea eskertu behar dugu eta ea etorkizunean "Ingurutxoak" osasuntsu jarraitzen duen. Gure aldetik, Leitzako txistulari eta dantzariak hori hala izan dadin lan egingo dugula agintzen dizuegu.

Besterik gabe, mila esker Leitza, eta eutsi "Ingurutxoari"!!!!

Leitzetik Andoainera oiñezko aldia. IV idatz atala

IRAKURLE ZAITUDAN ADISKIDE,
DIOSALA ZURI.

Plazaola aldizkaria, Leitzeko Aurrera Kirol bazkunak eta Leitzeko Errikoetxea laguntzaillea, babesleak dielarikan, erritarrei egin digun olesari, deiari, gogabiziz artuta banoakizue "Plazaola" aldizkariarako idaztera....

Igazko izkribu gaiaren bukaeran esaten nionari, jarraipena ematera nijoakizu.

Gaurkoa IV atala izanen dezu. Leenengoa, Leitzetik Bizkotzko deritzen zaion Meatztegira izan zen, bigarrena Bitzkoztik Ameraunera, hirugarrena Ameraundik, Uiziñe bordatik barrena, Andoaingo tximistargi zentral aundi-raño. Eta laugarrena, au dezu, Ameraundik Olloki auzoraño.

Ameraundik auzo ortara oiñez noalarikan, leen ere sarritan esan badizut ere, berriro errepikatuko dizut, oiñen azpian dezun lurra; leen, trenek Andoaindik Iruñera eta alderantziz egiten zuten bidaia, bide bera dela. Ameraundik, Olloki auzoraño bideartekoa 10 kmkoa omen dela esaten dute. Begien bistak, nola ezkerreala eskuiñera zuzendu ezkerrez basoa, oiana ikusten dena da; agitz sendo diren zuaitzez ornituta, mendiko pistientzat gorde, muturkatu, usarretutzeko leku egokiak.

Aurrera zoazelarikan ezkerreala xamarrean gurutzabide bat ikusiko dezu eta aurreraxego joanez erreka zubi bat, au igaro ezkerrez laister xamar, aurrez aurre aurkituko zera "Benis" deritzen zaion borda batekin, orain gutxi arte-raño baserri-artzantzaneke lan egiñetan famili bat bizi zen, baiña gero gerokoan basati paraje onetan bizi arnasa artzen zuen famili onek bizi paraje au utzirik kale aldera joan zen; Orain berriro samarrean jakin dedanez,

estalpe duen borda onetan eskola aundi duen gizaseme bat bizi omen da.

Orain, itzuli nadin ba leentxexeago ari nintzen arrastora, Olloki auzora eramanez nauen estartara.

Ollokiaruntz noalarikan, arritzekoki bat sortu zait eta zera da, maiz maiz aurkitu naizela derrigorrez igaro bearrezko luze luzeak diren lurpebideekin (tunelak); lur esparru arkaitzatsua, eremua orrelakoa izankio.

Oiñezko joaniñean askotan begien bista ezker-eskuiñ begiratz asper eziñeko ikuskizun diña ikusi aal dittezte; erreka aldamentan, zutik zaudelarik, amorraien jokoak, beraien bizi jostakerak eta ainbat bittikeriak, beraien artean egiten ditzuztenak ikusi aal dittezte. Olloki auzora iritxi zear ari naizela igartzen bait diot.

Begien aurrez aurre azaltzen ari zait eta metro gutxi ibilli eta gero, aurkitu naiz guztiz guztia xamargarri eta lilluragarri den auzo poxpolin onekin, Olloki alegia. Bizpalau etxe beregan ditzuna, 2 borda-baserri ere badittu. Nekazal eta artzantzari urbildurik buru belarri saiatzen diren familiak; leendik duten ondar ondasunari xoxa batzuk erantsi naiez.

Bi tximistindar etxe ere badittu. Urlio deritzen zaion eremulur, esparrulur zabaletan sortu eta doai indartzen den Martingorri izenez ezaguna den erreka arek mugieraziten dittu bi tximistindar olaetxeen trikimaillu guztiek.

Tren geltoki onek ba zuen nola ez ba, taberna gelatxo bat.

Berastegitik, Ollokira oiñezkoentzat ordu-biko bidea dago, indarra eta kemenak urrittu, agortu egiten dire eta ostantu gelara sartu ezke-

roz bertan zegoen nagusiari edo etxeoandeari pattarra edo bisigarri lukeen edaria eskatu eta ematen bazizun au edanez bizipoztu, txantxagorrittu egiten zera eta edanduna bizi-
poztu egiten da.

Bitxikeri batzuk idatzi dizkizut irakurle, baiñan beste bat edo bi idatzi gabe ez naiz gogoz egonen eta banoakizu...

Oloki, Elduaingo erriari dagokion auzoa dezu eta beregan dauzkan ondasunetan aipatu dizkizut tximista etxeolak eta bizi baserriak zittuela, baiño tren geltokia ere bazuen eta auzoan bizi ziren gizakien joan-etorri bidaie-
tarako, oso garrantzitsua.

Baita ere nola ez pa!: Oloki ingurumairuko oianetatik bertara billakatzen ziren zuregaiak, meatzgaiak eta abar luze bat. Delako geltoki onek zelaidun ezparru zabal bat bazuen tren-
tzentzako. Bi burni karrillez aldamenetan tinkotuak, karrilletako bat, Iruñeraruntz edo Andoainaruntzako trenentzat prest zegoena. Beste karrille aldiz oienetatik billatutako gaiak, nola egurikatza, meatzgaiak, zuretzale-
zak eta abar luze bat eramateko. Karretuak aal izateko, trenaren karga ontzi bidez egiten zen. Eta zuretrabesak aipatu dedan ezkeroz idatzi bearrean aurkitzen naiz basamortuak bazittue-
la ainbat izkutuko lekuetan zuretrabesak egin aal izateko propio antolatutako zerraplazak; olakoetan trenzazerra edo arpan egokien bidez zuretrabesak, tabloiak eta abar, egiten zittuzten. Egin- egiñean, mendian pillatuta uzten zittuzten geroko aldietan, mandoan bidez auen egokiz antolatutako bizkarbastaka-
koiez karreratzen zittuzten Ollokiko geltokira.

Lekuratzeko ainbat aldietan, mandozain mutillek, beraien mandoak trabeszamak zekarzkitenetan itxillu eta komeri gorri gorri-
netakoak ikusten zittuzten bai; mandoak-yaki- ñe- ari arian, doi doi egiñiko bide bitxurretan ibilli bear izaten zuten eta bidea zelaisuz ego-
kitu ezkeroz, bazen gaitzerdi; baiño ez orratio malkartxuak ziren zenbait lekuetan, auetan giro sosegatsua aurkitzeko astirik iñolaz ere ez. Mutil auk olakoetan, sarritan beraien senaren sentimenak minberatuak izaten zittuzten ¡nola ez pa! giro kenkatsu aietan. Neronek ere ikusi ikusiak izan nittun.

Bai, bai idatzitakoari uztartuaz esan bearrean aurkitzen naizela gaur egun gertakari auk ikusi nai izanda ere ez litzatekeela posible izango. Euskalerrian, aipatzen ari naizen garai aldi ura akittu zen, itzali zen.

Gaur egun gureak diren lurretan nai izanda ere ez da ikusten; mendietako ikatzak karrea-
tzeko –baldin izanda ere– mandoak aurkitze-
ra naiko lan emanen luke.

Orain eldu dezaiodan geltokiak, izan zuen karretu-ta eldutako merkantzia edo generoa lekuratu aal izateko esparru edo leku berezia, berezia diot eta alaxe da, aipatu dizudan espa-
rru onetan trenek gerokoan eramango zittuz-
ten ontzial, ontziak, alegia, aurrez, jakiñiko tokietan sartu eta utzi bear izaten ziren karga-
tuta: txondorretan egindako egur-ikatza, tren-
bideetan paratzeko zuretrabesak, meatzetako meta gaiak, tabloiak, guzti auk beraiantzat paratutako leku egokiak bazittuzten. Baserrian, txerritegian txerrikume bakoitzak bere kokatokia duten antzekoz.

Geltokian gizakien eskulanez, zamak tren ontzietara kargatzen zittuzten. Baso-mutillek ziren gehienetan, langintza au betetzen zute-
nak, oi den bezala, gazteak eta sasoi bete betean zeudenak, lanmuziñik azaltzen ez zutenak, noski.

Nik garai artan, jakin nuenez, egur-ikatza ezik gaiñantzeko generoa Pasaiko kaia edo puertora eramaten omen zuten: Ots, karga ontziak itxoin bearra izaten zuten bolada labur batean, eramana aal izateko, yakiñe, sugurdia (lokomotora) etorri arteraño; au eto-
rrita ere abiatu aurretik makinistak, karretoan eraman bear zituen zama-ontziei begizko errepamen bat egin bear izaten zuen ea zama-
ontziek onik lotuta ote zeuden edo ez. Errepamenaren geroz makinistak ala ere, apur-
txo bat itxoin bear izaten zuen, zera-eta gelto-
kiko nagusi agintariak trenari abiera emateko txirriñaren ots ozenaren entzun zai. Makinistak au entzunik, trenari abiera ematen zion.

Bai, bai adiskide zaitudan irakurle: irakurri ezazu orain Olloki`ko geltokian gertatutako bitxikeri au: beingo batean geltoki onetara iri-

TIBURTZIO DONEAREN PESTAK

txi omen zen mandozai bat, atzetik oi zen bezala bere mando mordo batekin, errenkan, endeman zekarzkinak eta kasua da mandozaia mandoek zekarzkiten zamak lekutzen ari zela eta mandoetakon batek mandozaiari, lipar batean, onen ustekabeen ostiko gorri gorri oietako bat jalki zion eta pentsa dittekeenez mandozaiari miñ eman zion. Orduan mandozaiak bere onetik aterata birau gorri gorri oietako bat tximista balitz bezain azkar bere ezpaiñ zabaletik atera zitzaion...

Eta kasua da, ala egokitu zen, tren bat bidaiariekin zegoela eta makinista, geltokiko agintariaren txirrinaren entzun zai abia aal izateko. Eta gertatu zen bidaiari guztien artean apez bat zegoela, onek mandozaiari ezpañetik atera zitzaion birau gorria entzun zionean, trenetik jetxi eta zuzen zuzenean mandozaiarengana joan zen. Eta apezak, mandozaiari kargu artu eta bien artean asarre biziko iskanbilla sortu arazi omen zutela, neregana iritsi zen albistek zionez.

Gerokoa berriz zera da, apeza zijoan trenan, Iruñaruntz zijoala eta Leitzera iritsi zenean apeza trenetik jeitxi eta Leitzeko Errietxera jo zuen, eta bertako sekretarioari Ollokiko geltokian gertatutakoa, adierazi zion. Mandozaiaren izen-abizenak eman eta onekin

izan zuen gertakaria, birauana alegia, kontatu eta kasu auetan- aldi artan biraua zigortua izaten zen- mandozaiari zegokion isuna paratze-ko salatzeru urbildu zela Errikoetxera.

Mandozaia berriz, bera ikusitakoak esan zutenez, bere burua doakabetasun larri artan ikusi zuenean, irainka irainkaz aritu zela asperetsi arteraño. Ni neronek, mandozaiari zenbat añeko diru isuna paratu zion sekretarioak ez nuen jakin izan. Apeza, bere jatorriz, Leitzarra omen zen. Mandozaiaren sorterrie, berriz, emen inguruan dauzkagun erri kozkorretako gizasemea zen. Nik ezagutu nuena, eta maiz maiz berarekin solasean aritutakoa izan arren, bera izenik ez det paratuko naiz eta gaur egun illik egon "Goyan Bego" Leitzerriko eta inguruko erri kozkorretako aibat bordariek ere- gaur egun bizi direnak- ezagutu eta solastu ziren, delako mandazai zena- rekin.

Laugarren idatz atal oneri bukaera ematera noa eta irakurleari esan: elduko zaigun urterako- Jainkoak lagun_ Plazaola aldizkariko arduradunak, aldizkarian, idazlekurik, azken urteetan eman didan bexelaxe ematen badit, idatziko dedala, V. idatz atala izen buru au duela: Ollokitik Andoaingo erriaruntz.

MIKONE`KO DEMETRIO`K

Leitzeko azken aurkikuntza prehistorikoak



Duela bi urteko Plazaolan, alegia, 2002koan, Leitzan ordurarte egindako hainbat aurkikuntza prehistorikoen berri eman genuen, baina geroztik gauza berri gehiago azaldu dira eta aurtengo Plazaolan aipatzea interesgarria delakoan gaude. Iona hemen beraz, aurkikuntza berriak:

Nahiz eta aurkikuntza aspaldikoa izan, 2002ko artikuluan ez genuen Urepelgo harrespilaren barri eman. Harrespila Bidegorrieta eta Urepel artean dago eta Iñaki Gazteluk aurkitu zuen 1983ean. Dena dela, lurrez ia guztiz estalita zegoen eta ia ez zen harririk antzematen. Orain berriro Aranzadi eta Gorostiko kideek garbitu egin dute eta belarra kendu ondoren agerian gelditu da.

2003ko urrian Migel Mari Elosegik trikuharri berria aurkitu zuen Aitzmurdi izeneko parajearen. Monumentu hau Saberriko atekatik behera bizkarretik jaitsi, eta lepo-lepoan gelditzen da. Harri-pila handi xamarra dago han eta erdi urratua egoteaz gain, gainean monumentukoak ez diren zenbait harri ditu, seguruenerik, garai bateko artzainen batek itxituren bat egin ahal izateko. Dena dela, oraindik ere antzemateko moduan dago.

Behar bada, berririk harrigarrienak, duela oso denbora gutxi egindakoak dira. 2004ko maiatzean Aranzadiko kide den Iñigo Txintxurretak, bi trikuharri aurkitu zituen Iruson. Bere garaian Sarasain Bizkarreko harrespilarekin gertatu zen bezala, aurkikun-

tza hau harrigarria izan zen. Izan ere, ehiztariak postuetara igotzeko erabiltzen duten bide-xidorretik berta xamarrean daude, eta Irusoko etxetik eta errepidetik bost minutura.

Irusoko Trikuharriak nabarmen xamarrak dira baina añar eta sasiz esta lita egonik oharkabean pasa dira urte askotan. Txintxurretak bere aurkikuntzaren berri eman eta Aranzadi eta Gorostiko kideak, herriko zenbait lagunekin hurbildu ziren ingurua aztertzeraz eta sorpresak ez ziren hor bukatu. Izan ere, inguru garai batean mugituak izan diren harriz beterik dago, eta zenbait lekutan, harrespil-itxurako formazioak eta baita lurrean sartutako harriekin egindako lerroak zeuden.

Hortaz, Iruson zegoena hobekixeago ulertzeko, monumentu prehistorikoetan aditua den Luis Millanek deituta, Deustuko Unibertsitateko geologia irakaslea Koldo Martinez hurbildu 'zen hura aztertzeraz. Aditu honen ustez, Iruso eta gaineko magal osoa, oso aspalditik eta ehundaka urtez minerala ateratzeko erabilia izan da. Badirudi goetia izeneko mineral bat ateratzen zutela, eta litekeena da harri-mota horretatik zilar pixka bat lortu ahal izatea ere. Martinezek Euskal Herrian beste bi lekutan ikusi zituen antzeko aztarnak, Aiako Haitzetako Arditurrin, eta Baztango Aritzakunen, eta bi kasuetan erromatarren garaikoak dira. Berdina ote da Irusoko kasua? Erromatarrek ibili ote ziren harriak ateratzen handik? Auskalo! Hori erantzuteko ikerketa sakonagoa egin beharko litzateke, baina ziur esan daiteke Iruson aurkitutakoak giza-aztarna zaharrak direla.

Bien bitartean, Aranzadi eta Gorostiko lagunak Irusoko inguruak miatzen ibili ziren, eta gauza berri gehiago azaldu dira. Lehena Miztortegietan, Leitzelarreko errepidetik eta batez ere Irusoko ehiza-postuetatik oso hurbil dagoen tumulo bat da. Eta bigarrena, Jentillen Arrobie izena duen lekuan aurkitutako trikuharri berria. Paraje hau Meakako Iturritik Arramia aldera joanda dagoen zelai batean dago, trikuharriak paratzekoarrunt leku apro-

posean. Dena dela, monumentu ez da oso nabaria. Leitzarrek ahoz-ahoz mantendu duten "Jentillen Arrobie" izenak, bat baino gehiago eraman zituen paraje horretara garai bateko gizakien aztarnen esperantzan baina orain arte ez zen ezer aurkitu.

Beraz, gauza berri ugari gure herriko ondare prehistorikoa aberasteko, eta bistan denez, oraindik ere sorpresa gehiago azal litezke. Bukatzeko eta laburpen gisara, gauzaren arabera Leitzan ezagutzen diren monumentu megalitikoekin zerrenda emanen dugu:

Trikuharriak: Garai bateko gizakiek hildakoak ehorzteko eraikitako monumentuak dira. Ingurukoak 2.000-4.000 urte inguru dituzte. Hauek dira Leitzan aurkitutakoak: Mendibilkoa, Errolle Gainekoa, Biuztaingoa, Losarrobietakoa, Karakoletakoa, eta orain aurkitutako Aitzmurdikoa, Irusoko biak eta Jentillen Arrobiekoa.

Harrespilak: "Lurrean tente sartuta eta borobilak osatuz jarritako harriak osatutako hiletaroi-garriak dira. Leitzan hauetxek ditugu: Urdolakoak (duela gutxi arte hiru ageri ziren, gaur bakarrik gelditzen da), Sarasain Bizkarrekoa, eta Urepelekoa."

Tumuloak: Antzinako gizakiek egindako harripilak dira. Leitzan ondokoak ezagutzen dira: Biuztaingoa, Urepelekoa, Txarakoa, Baztarlakoa, eta orain aurkitutako Miztortegietakoa.

Iruñiarri edo menhirrak: Antzinako gizakiek lurrean tente sartzen zituzten harri handiak dira, baina hauen esanahia ez da oso garbi ezagutzen. Leitzan iruñiarri bakarrik ezagutzen da, Aritz-ko mendian dagoen Errolan Arrie hain zuzen ere, baina eroria dago. On Joxe Migel Barandiaran ospetsua izan zen Errolan Arriaren berri eman zuen lehena, eta badirudi Ozparrungo Joxe Joakin Sagastibeltza izan zela harri berezi hori 1920 urtean erakutsi ziona.

Gure Leitza Maitea

Leitza hurrengo urtean
zerbaitengatik da;
hain polita eta koloretsua,
besterikan ez da.

L
E
I
T
Z
A

Jaio aurretikan,
Leitzan pentsati.
(E)ta ala gertatu zen,
hemen bait nago ni.

Horren jende atsegin,
eta zoragarri;
ez da leku askotan,
izaten ugari.

LEITZAKO

Pikolo edo polizi
hemen dago ugari,
beharrezkoa ez denetik
beti dago gehiegi.
Batzutan kartzelera bidali
bestetan multa jarri,
horrenbeste dirurekin
ederki dira bizi.

EUSKAL HERRIAREN GARAIA DA

Urte zailak, gogorrak, izan dira azken hauek Ezker Abertzalearentzat. Estatu Espainiarrak bere maskara demokratikoa kendu eta Franco hil geroztik inoiz egin duen eraso bortitzena gauzatu du bere aurka. Helburua argia bezain zehatza izan da: Ezker Abertzalearekin bukatu, Ezker Abertzalea mapa politikotik ezabatu alegia, Euskal Herriaren burujabetzarako motorra itotzeko asmoz hain zuzen.

Legez kanpo utzitako erakundeak, egoitza itxiak, lapurreta ekonomikoak (multak, fidantzak...), langabezira bidalitako militante andana, komunikabideen eraso etengabea, ehunka atxilotuak, dozenaka torturatuak, erahildakoak, gartzelaratuak, atzerrira joan beharra izan dutenak eta abar luze batek ... errealitatearen aurpegi gordinena erakusten digute. Baina hortaz gain, badira beste elementu batzuk aurrekoen osagarri direnak: euskarari eta euskal kulturari eginiko erasoak, gure identitatea eta nortasuna ezabatzeko asmoz eginikoak, Estatu honen agintarien eta sostengatzen duten politikarien egiazko aurpegi ez-demokratikoa azaltzen dutenak.

Errealitate gogor horren aurrean Ezker Abertzalearen tinkotasuna geratu da agerian. Iparra galdu gabe sendo eutsi baitio herri honen aldeko lanari, eta duintasun osoz gainera. Gudari batek esan zuen bezala: "etsaia gogorra da, baina gu gogorragoak". Ezker Abertzaleak ohiko adorea eta keme-nak erakutsi ditu, lanerako eta borrokarako grinarekin batera. Zalantzarik gabe, egoera berria sortzea lortu du, espainiar eta europar hauteskundeetan nahikoa argi islatu den moduan. Hauek dira hauteskunde horien inguruan bereziki nabarmentzen ditugun ondorioak:

- PP-ren porrota. Lau urtetan bukatu nahi zuten Ezker Abertzalearekin. Zortzi pasa dira eta haiek dira amildegitik behera abiatu direnak. Antzeko gauza gertatu zitzaion lehen PSOE-ri, hauek ere ezker Abertzalearen aurkako guduan eginiko gehiegikerien bitartez galdu baitzuten Madrilgo agintea. Batzuek eta besteek ez dutela ikasten dirudi.
- Ezker Abertzalearen sendotzea. Askok esan zuten azukre kozkorra kafesnean bezala urtuko ginela denbora joan ahalean. Baina ez da hala gertatu. Alderantziz, azken hauteskundeetan behera egin ez duen indar bakarra izan gara. Hortaz gain, Euskal Herri osoan, zazpi herrialdeetan, sustrai sendoak dituen indar abertzale bakarra garela erakutsi dugu. Lurralde zatiketa guztien gaineratik, "zazpiak bat" errealitate ikusgarria bihurtzen ari dela nabarmendu dute emaitzek.
- ARALARren beherakada. Indar honek ez zuela etorkizunik eta denborak bere lekuan jarriko zuela esan genuen orain urte bete jaio bezain azkar. Ba, urte beteko epe hau aski izan da gure iragarpena esan genuen moduan bete dela denon bistan azaltzeko. Aralarko jendeak PP-PSOE bikotearen estrategian murgildu ziren bete-betean. Ezker Abertzalea zatitu egin zuten eta Batasuna botoz hustea hartu zuten asmo nagusitzat. Azken urtea helburu hori lortu nahian eman dute

LEITZAKO JAIK 2004

lotsagabeki eta emaitzak begi bistakoak dira: Ezker Abertzaleak sendo eutsi dio erronkari eta Aralarrek publikoki onartu behar izan du bere porrot handia.

- EAJ-PNV. Oinarri sozialari eutsi egin dio, baina azken hamarkadetan nabarmentzen ari den moduan, bere eragina Araba, Gipuzkoa eta Bizkaira mugatzen da.
- EUSKO ALKARTASUNA. Zailtasun handiak ditu bere oinarri sozialari eusteko. Poliki-poliki beherantz doa, oso zaila baita esparru abertzalean dauden bi polo nagusien artean leku propioa izatea.

Etorkizunari begira, eztabaida potoloa da mahai gainean duguna: marko politikoaren agorpena eta Euskal Herriaren aitortza. Zalantzarik gabe, aukera berri baten aurrean gaude Euskal Herriaren aitortzan urrats berriak emateko orduan. Aipagarria da bide horretan Nazio Eztabaida Gunea erakitzen ari den bidea eta zehaztu dituen konpromisoak:

- Nazio Kontseilua sortu, nazio eraikuntzari bultzada sendoa emateko asmoz.
- Larrialdi Batzordea sortu, Euskal Herriari egiten ari zaizkion erasoei aurre egiteko.
- Gatazkaren konponbiderako mahaia sortu.

Dagoeneko, gure herriaren etorkizunaren sustraiak sortuta daude. Lanerako garaiak dira aurrean ditugun hauek, ez gora begira edo besoak gurutzaturik geratzeko. Hona hemen abertzale guztientzat eta bereziki Ezker Abertzalearen jarraitzaileentzat ditugun lanerako proposamenak:

- Nazio eraikuntzari bultzada eman. Euskal irakaskuntza, euskal selekzioak, euskararen ofizialtasuna, alde hemendik, presoak etxera... Urrats tikiak eman ez lortzen baita handiak ematea.
- Borroka. Borroka baita aurrera egiteko bide bakarra. Kalera atera behar da, aldarrikatzera eta erantzutera. Zer egin berezia dugu egun egiten ari zaizkigun lapurreta politikoa salatzeko.
- Antolakuntza. Dugun erronkaren ardura ezin dugu pertsona gutti batzuen esku utzi. Denon artean egin behar dugu aurrera. Denon artean jarri behar dugu martxan modu antolatuan Euskal Herria erakitzeke auzolana. Denok eman behar dugu zerbait gutti batzuk dena eman ez dezaten. Aurrera bolie!

EUSKAL HERRIA ASKATUko kide batzuk

2004ko ekaina

ETXEBIZITZA:

Gaur egungo buruaustea

Denok bat gatoz etxebizitzarena dela gaurko arazo larrienetako bat. Eta horrela da, jende askorengan eragina duelako eta elementu gutxi batzuen interesak, gehiengoaren interesekin talka egiten dutelako.

Bizitza antolatzeko ditugun arazoetako bat hauxe da, eta ez nolana hiko gainera. Etxe bat alokatzeko edo erosteko aukera urriak dira, horrexegatik, baldintza gogorrek suertatzen dira, eta merkatu basati batean sartu behar dugu gure beharrak asetzeko. Joko horretan sartu besterik ez dagoenez, ilabeteko lan ordainaren puska handiena bizitokiak eramaten digu, beste gastu guztiak murriztu beharra etortzen zaigu, eta zenbait joka bideri uko egin behar ere bai. Lan munduan berriz baldintzak ez dira orokorrean duinak, egonkortasun falta, lan ordu askotxo, ordutegi traketsak, baina dena onartzen dugu, zulo guztiak estaltzeko behar dugun diruarengatik. Egoreak kateatzen gaitu, zailtasun batek bestea onartzera eramaten gaitu.

Irtenbideak zailak dira, eta askotan oztopoz josita daude bide horiek. Maila desberdineko agintariek badute zer esan handia, bakoitzak bere mailan noski, baino beren esku dago arazoa leuntzea. Oso garrantziskoa da erabakiak hartzeko garaian asmatzea, erabaki horien ondorioak luzera somatzen direlako, bai onerako eta bai txarrerako.

Agintariei jarrera irekia eta ausarta, joko zuzena eta garbia, bultzada sendoa eta iraunkorra, eta batez ere gehingoarentzat eta ahulnerearentzat etxebizitza duin bat eskuratzeko aterabide modukoak eta malguak eskatu behar zaizkie.

Alokairu sistema bat bultzatu behar da herrian, nagusiak beraien etxeak alokatu nahi izateko, eta alokatzaileak bere beharrak asetzeko. Eta horretan Udalak muinak astindu behar ditu, eta bere bitartekoak dantzan jarri, nahiak eta beharrak parekatzeko. Etxe eraikuntzari begira, lur antolamedua erabakiorra da, eta egitasmo gehienak baldintzatzen ditu. Baina kontuan hartu beharreko gauz asko daude egitasmoak aurrera eramaterakoan.

- Beharrezkoa da lehentasuna ematea babes ofizialeko ekintzei, ondorio zabalak ekartzen dituelako, bai behar gehio duten biztanlei erantzuna ematen zaielako eta baita bigarren eskuko merkatuan era-

den tresnak erabiltzeko, bere zabaltasun eta sakonera guztian.

- Hirigintza jasangarri bat bultzatu behar da, eredu amerikarra baztertuz, lur gutxiagorekin eta azpiegitura itikiagorekin etxe ale gehiago izateko, ez baita bidezkoa lur saila ikaragarri erabiltzea etxe gutxi batzuk eraikitzeko. Etxeak aurreztatzaileak dira, eta zesio publikoa askoz handiagoa ematen dute. Inondik inora ere ez da "desarrollismo" garaiko eraikuntza erraldoietara jo behar, erdi bide bat bilatu baizik.
- Hirigintza unitate batek etxe libreak eta babes ofizialekoak dituenean, unitate horren bultzatzaileak, babestutako etxeak garatu beharko lituzke libreak baino lehen. Mota honetako hirigintza unitateak bultzatu beharko liriteke, ekintza pribatuak garatu dezan babestutako eraikuntzak. Gainera biztanleen arteko berdintasuna ere bultzatzen da.
- Garrantziskoa da baita babestutako etxeen adjudikazioa Udalak kudeatzea, baremo baten bidez, lehenengo urratsatik hasita azkenekoraino. Berdin administrazioak bultzatzen duenean edo ez. Modu honetan bidez, "entxufismoa" galeratzen da emateko garaian, eta garatzen duenak ezin du eskatu diru beltzarik azpitik, salneurria erabakita dagoela-ko erostune jakin baino lehen, eta erostune baremoak ematen duelako.
- Eta eraikuntza berri guztiak, autoak lurpean gordetzeko tokia behar lukete, etxe bakoitzeko leku bat eta erdi. Honeri geitu beharko zaio kanpoaldean aparkaleku publikoak izatea.

Baina gure ardura ez da gure iritzia ematea bakarra, asmo hauek aurrera ateratzeko proposamenak landu behar genituzke baita, eta horretarako lanean ari gara. Plazaola aldizkari honen ale berri bat ateratzeko proposamen horiek aurkeztuak, onartuak eta martxan jarriak izatea da gure nahia.

Bada garaia herri honetan arazo larri honeri, irtenbideak emateko, herriak babestutako etxeak behar dituelako, ezin dugulako jasan denbora gehiago goi mailako etxeak bakarrik eraikitzen, eta eskubidea dugulako etxe duinak eta merkeagoak izateko gure herrian. Horrelako aukerak izanda, herria bizkortuko da. Kanpora ioaten dena agian geldituko da, eta herri

442 SINADURA

HERRI KONTSULTAREN ALDE

2004. hau Albiñon harrobi bat hustiatzeko asomaren berri izanez hasi ondoren, Leitzar talde batek herrian bide berri bat martxan jarri nahi izan dugu: Herri Kontsultaren bidea.

Sasoi honetara iritsirik, eta aldizkari honek ematen digun aukera aprobetxatuaz, orain arte egin dugunaren berri eman nahi genizuke irakurtzen diharduzun horri.

ZAHARRAK BERRI

Albiño aldean harrobia hustiatzeko asmoa ez da berria.

Jadanik 1992-an "Construcciones Azpiroz y Saralegui"-k harrobi hau martxan jartzeko asmoa azaldu zion Udalari, horretarako baharrezko zituen baimenak eskatu eta proiektu eta lanak burutzeari ekinez.

1995-eko martxoan "Construcciones y Viales Convial"-ek ("Construcciones Azpiroz y Saralegui" "Construcciones y Viales Convial"-en baitan dagoen enpresetako bat da) Udalari harrobia kokatuta egonen litzatekeen lur eremu komunala eskatu zion bere jabegoko beste lur batzuen truke (lur trukaketa eskaria); proposamen hau onartu ahal izateko korporazioaren bi herenaren (2/3) adostasuna beharrezkoa zen, eta horrelakorik etenez lortu lur trukaketa ukatu egin zitzaion "Construcciones y Viales Convial"-i.

1996-an Herri Batasuna Udaltaldeak harrobiaren inguruan Herri Kontsulta egitearen aldeko sinadura bilketa egin zuen etxez-etxe, 1.081 sinadura lortuz; hiltzetaren 18-an eginitako Udal Batzarrean Herri Batasuna eta Eusko Alkartasunaren aldeko botoekin Herri Kontsulta hau burutzea proposatu zen, baina azkenean etzen horrelakorik burutu.

Hainbat urtetan gaia lozorroan egon ondoren 2003-ko azaroan "Construcciones y Viales

Convial"-ek berriro ere Udalari Albiñon harrobia martxan jartzearen inguruan zein iritzi izanen lukeen galdetu zion, hustiapenari ekin ahal izateko udal baimena eskatuaz. Aldi honetan, Udalarekin izandako elkarrizketetan, bi aukera proposatu ditu "Construcciones y Viales Convial"-ek: Batetik lur trukaketa egitea (1995-ean proposatu zuen bezala), horretarako Korporazioaren bi herenaren (2/3) adostasuna behar izanik, eta bestetik lur eremu komunalararen hustiapen baimena eskuratzea soil-soilik (lurren jabegoa lortu gabe), horretarako gehiengo simplearen onarpena nahikoa izanik.

Honela bada, 2004-eko urtarrilean lagun talde bat elkartu eta lehen saio hartan (1996) burutzea iritsi etzen Herri Kontsulta habian jartzeari ekin genion urriaren 28-ko 27/2002 Lege Foralean oinarrituta.

PAUSOZ-PAUSO

Herri mailako Herri Kontsultak erregulatzeko urriaren 28-ko 27/2002 Lege Forala jarraituz (2002-ko azaroaren 6-eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 134. zenbakia) ondoko pausoak eman ditu talde honek:

- 2004-eko otsailaren 12-an idatzi baten bidez talde honen eta gure asomaren berri eman genion Udalari, Albiñoko harrobiaren inguruko Herri Kontsulta egitearen aldeko sinadura bilketari ekinez.

TIBURTZIO DONEAREN PESTAK

- Hiru hilabetetan zehar (otsailaren 12-tik maiatzaren 12-ra) sinadura bilketa egin zen Udaletxeko Idazkaritzan, epe honen amaieran 442 baliatzeko sinadura jasoaz (Leitzan erroldatutako 18 urtez gorakoak).
- Pasa den ekainaren 17-an, bildutako sinadurak aurkeztuaz, Udalari zera eskatu genion instantzia baten bidez: Albiñoko harrobiaren proiektuaren inguruko Herri Kontsulta burutzeko deialdia egin dezala.

Lege Foralari jarraiki emandako pausoez gain bestelakoak ere egin ditugu hilabeteotan: Talde politikoetako ordezkari eta herriko talde eragileekin bilerak, elkarrizketak (Karrape Irratia, Ttipi-Ttapa, egunkariak), asteroko bilera irekiak (herritarren partehartzea)...

ETORKIZUNERA BEGIRA

Ekainaren 17-an Udalari Herri Kontsultarako deialdia egin dezala eskatu ondoren Udal Plenoan hartu beharreko erabakiaren zai geratu gara.

Urriaren 28-ko 27/2002 Lege Foralak diotaren arabera Udal Plenoak Gehiengo Absolutoz adostu beharko du Herri Kontsulta burutzea. Lege honen arabera Udal Plenoak Herri Kontsulta baimentzeari ondoko lau kasuetan uko egin ahal izanen dio soil-soilik:

- Kontsulta egin nahi deneko gaia Udaletxearen kompetentzia ez izanez gero, edo Ogasuneko (Hazienda) gaia izanez gero.
- Gutxienez herritarren %10-aren sinadura ez lortu izanez gero Herri Kontsulta burutzearen alde (honen arabera 250 sinadura inguru beharko lirateke Leitzan eta 442 lortu dira).
- Herri Kontsultarako eskaria eta deialdia hauteskunde garaian eginez gero.
- Proposamena Ordenamendu Juridikoaren aurkakoa baldin bada.

Udal Pleno honetan Herri Kontsulta burutzea erabakiko balitz kontsultan egin beharreko galdera adostu beharko litzateke (edo galderak). Ondoren Udalak Gobernu Zentralaren baimena lortu beharko luke, eta azkenik Alkateak Herri Kontsultarako deialdia eginen luke, horretarako beharrezko baliabideak martxan jarriaz. Herri Kontsultaren emaitza elitza-teke binkulantea izanen, hau da, Udala elitza-teke derrigortua egonen emaitza hori kontutan hartuz Albiñoko harrobiaren inguruko erabakia hartzerakoan.

AZKEN ERAREFLEXIO ETA ESKERRAK

Talde honek Herri mailako Kontsultak erregulatzen dituen urriaren 28-ko 27/2002 Lege Foralean jasotzen denari jarraiki, herritarrok gai publikoetan parte hartzeko dugun eskubidea, guk aukeratutako ordezkarien bidez nahiz zuzenean (Herri Kontsulta baten bidez), bermatua izan dadin nahi du.

Udaletxea izanik herritarrongandik gertuen aurkitzen den Administrazioa beronekin dugun erlazioa 4 urtean behin gure botoa ematera elukeela mugatu behar uste dugu; gertutasun hori dela eta eztabaida sortzen duten gaien inguruan herritarrok gure iritzia ematea aberasgarria litzatekeela iruditzen zaigu.

Honela bada, eta amaitzeko, GUREKIN BAT EGINEZ HERRI KONTSULTAREN ALDE SINATU DUEN GUZTIARI ESKERRAK EMAN NAHI GENIZKIZUKE; eraberean aukera hau aprobeztatu nahi genuke herritar oro animatzeko Herri Kontsultan parte hartu (burutzen bada behintzat) eta iritzia ematera.

Besterik gabe, agur bero bat eta pesta zoriontsuak denoi.

HERRI KONTSULTAREN
TALDE SUSTATZAILEA

Sasi Txistulariak

Badira urte batzu Leitzako txistulariekin harremanetan hasi ginela eta, haiekin eta beste hainbat txistularirekin behin baino gehiagotan hitzegindakoa aipatu asmoz piztu dut ordenagailua.

Txistua (musika) eta dantza mundu bat izatetik gaur egun bi mundu ezberdin izatera pasatzeko arriskuan daude hainbat tokitan. Beste hainbatetan jada gertatu da banaketa triste hau.

Txistuak kontserbatorioko argia ikusi zuenean gertatu zen erabateko banaketaren hasiera. Ordurarte gehientsuenetan txistulari aurretik dantzaria izaten zen, ondoren atabalaria (Afrikako ohitura onak jarraiki) eta azkenik txistularia. Haiek bai ongi ezagutzen zutela zer eta nola jo dantzariak laguntzeko!


Honela, gaur egun dantzarientzako irakasle bat eta txistularientzako beste bat izango ditugu eta, askotan, txistulariak berak bakarrik zein taldean musikalki garatzeko aukera zabala ikusiaz dantzariekin zuen edo izan zezaken harremana bertan behera utziko du.

HISTORIA PIXKA BAT KOKATZEKO:

- Txirulak ia gizakia bezain zaharrak direla esan genezake. Gertuen dugun adibidea, Isturitz-eko (Lapurdi) kobazuloetan aurkitutako KA 30.000-40.000 urteko hegazti hezuraren fosila dugu.
- Txirulak mundu osoan zabalduak daude. Forma ezberdin ugari aurki genitzake: esku bakarrez jotzen direnak, bi eskurekin, bi eskuz gainera bordoi gisa hirugarren eta laugarren tutuak dituztenak, e.a. Iberiar penintsulan soilik, txistuaren itxura antzeko eta esku bakarrez jotzen diren hamar txirula ezberdinetik gora daude, atera kontuak!
- Eliza kristauak egindako "bateratze-gar-biketaren" ondoren, (KO VI, Gregorio Aita Santua,...) txistua eta antzeko tresnak musika erlijiosotik kanpo geldituko dira, musika profanoaren, herri musikaren barruan sartuaz. Zoritxarrez, garai haietatik ia gaur egun arte, eliz gizonak izan dira irakurtzen eta idazten zekiten baka-rrerakoak, haien esku geldituko delarik gaur egun irakurri genezaken ia guztia erabakitzea.



Kroaziako txirula-jostailua. Gure guraso eta aiton amonek ez al dute ezagutzen?



Jolaserako txirula ezberdinak

TIBURTZIO DONEAREN PESTAK

Txistua eta gainontzeko txirulak, eta musika erlijiosotik kanporatuak izandako tresna gehientsuenak, herritarrei esker ahoz aho mantenduko dira mende luze eta neketsuetan (guduen inbasioa, arabiarrena, frantsesena, alemaniar eta espainiarrena, MC Donald's-ena, e.a.).

- Erdi aroan hasi eta XVIII. mendea izango da hiru zulodun txirula bertikalen zabal-kunde handiena biziko duen mendea (kontuan izan datu historikook Europari dagozkionak direla, gaionontzeko munda ez bait da existitzen...). Orduan ere modak garrantzi handia zuen eta Frantziako Errege eta Jauntxoek etxeetan ez zen Galoubet jole eta Probenzako danbolinjolerik falta (Frantzia zen munduaren zilborra).
- Euskal Herrira mugatuaz, historikoki gehienetan txistulariaren ardura izango da herriko ospakizunetako musika. Ardura hau, dantzaldiei dagokienean behintzat, XIX. mende erdialdetik aurrera elkarbanatu beharko du: trikitilariak, akordeoi joleak, albokariak, dultzina joleak, musika bandak, eta berbena taldeak azalduko dira, txistua baztertu eta lehenagotik bereak zituen herri mailako beste eginkizunetara mugatuaz: udal korporazioak laguntzea, dantza taldeen saioak laguntzea eta tresna hobeto ondoen kontserbatorioan sartu zenetik, beste tresna guztiak bezala, bakarlari nahiz taldean kontzertuak ematera.



Bi hots batera egiten dituen Dvojnice txirula

SARRERAREN ONDOREN,

ETOR NADIN HARIRA:

Txistuaren kontserbatorioko bidea Isidro Ansorenaren eskutik etorri zen (J I Ansorena edo agian Mirri pailazoa bezala gehientsuentzat ezagunagoa denaren aitona). Gaur egun, Goi Mailako ikasketak egin nahi dituenak hor du aukera, bai Donostian Musikenen, bai Iruñean Pablo Sarasate kontserbatorioan.

Euskal Herrian suertez edo alde guztietatik zapaltzen saiatu izan direlako agian, bizia herri kulturari eskeini dion jakintsu langile asko izan ditugu. Hauen lana askotan gure aiton amonek txikitik ikasitako abesti eta doinuak paperean idatzi eta aztertzea izan da. Ez baluteke egin bere garaian, asko eta asko galduak egongo lirakeke. Eliz gizon hauek aipatuko ditut, nolabait eskerrak emateko: Iztueta, Azkue, Aita Donostia, Aita Hilario Olazaran, e.a. luze bat (Elizak hanka sartze handiak egin dituen arren, elizgizon eta emakumeei hamai-ka lan eskertu behar zaizkie).

Gure herri kulturaren zati aberatsenetakoa ez al da ahoz ahoko transmisioaz mantendu? Ba ote du garrantzi izpirik gure aiton amonek irakurtzen ala idazten jakiteak arlo honetan behintzat?

Herriz herri genbiltzanean, maiz txistularien hotsak entzuten genituen. Musikarien artean ere "klaseak" omen nonbait eta, betikoa: igeltseroak harakinaren esperientzia ez duen bezala, harakinak ez du igeltseroarena. Oraindik ez dut ezagutu txistulari bateri euskal folkloreaken berri emango dion bestelako musikaririk!!! Bakoitzak berea ezagutzen du eta horretan segi dezala, lana ahal duen ondoren eginaz!

Leitzaren kasuan, altxor bat dugu gure artean: herriko txistulari gehientsuenak bertako jokera oso ongi ezagutzen dute, Anjel Alduntzin txistulariaren doinuak belarriz eduki ikasiak dituzte. Kontua ez da harek bezala jotzea, aire hori ematea baizik. Folklore bizi-rik dago, Anjelek Ebaristok bezala etzuen joko eta ondoren etorritakoek ere beren ogi apurtxo jarriko dute, munduan bizi garelako eta kanpoko eraginak ditugulako.

LEITZAKO JAIK 2004

Jai arratsaldeko saioan, gehienbat Anjel-ek erabiltzen zuen errepertorioaz baliatzen omen dira herriko txistulariak eta, Anjelek ere ziur aski bere garaian errepertorio zati bat aurreko-
ei ikasitakoa izango zuen, eta aurrekoak aurrekoari, e.a. Honela beraz, iganderoko saioko nota askok ehundaka urteko historia dutela esan genezake. Leitzako aiton amonak, haien gurasoak eta zaharragoak ere dantzan jarri zituzten nota berberak.

Herriko txistulariek askotan aipatzen dute karrapea jendez gainezka dantzan egoten zen garaia. Gaur egun txarangak dabilten bezala orduan txistulariak ibiltzen ziren herriz herri pestak alaitzen. Txistulariek ere hainbat urtean erabiliak izandako beste tresna batzuei tokia kenduko zieten azken 300-400 urteotan. Gure gizartearen aldaketen azkartasuna ikusteko hona hemen adibide argi bat: Incansables txaranga duela 33 urte sortu zen eta herri askotan, txistulariek aspaldidanik betetzen zituzten funtzioak hartu izan ditu. Arrazoiak aurkitu nahiean honakoak aipatuko nituzke: hotsa, moda, tinbre aukera eta moda.

Baina txistulariek urte askotan izandako lan gehientsuenekin jarraitu eta zorionez jarraituko

dute: aipatu jaiegun arratsaldeko saioa, pestatako korporazioa, dianak, plazako dantza saioak, ihauterietan herri eta baserrietako eskea, Gorputz eguneko prozesioa, e.a. luze bat.

Herri txikia izaki, ekintza gehientsuenetan aurpegi berdina ikustera ohitu gara. Txistulariei dagokienez, txalo bero bat eskatuko nizueke, herriari eta benetako herri folklo-
reari eskeinitako zerbitzuengatik eta indarrez jarrai dezatela beste hainbat urtetan.


Musika barruan, aipamen hau egin nahi nuke: Ekainaren 18an zineko kontzertuan ederki ensaiatu ondoren parte hartu zutenei eskerrik beroenak egindako lan bikainagatik!!

Hasierako harira bueltatuaz, sasi txistulari terminoari buruz hauxe esan nahi nuke:

Izendapen hau entzuten nuen lehen aldia ez zen, ustez bai azkenekoa edo hurrena entzutean behar duen errespetoaz izatea gus-
tatuko litzaidake behintzat.

Zain ditzagun Leitzako Txistulariak, gure herri folkloreak zaindari finak dira eta!!

URKO AROZENA



Txirula bertikal ezberdinak: Diplica (normalki bost zulodun txirula), Dvojnice (edo txirula bikoitza), Vidalice (bi, hiru eta lau tuduna) eta Strancica (sei zulodun txirula).

Kaixo lagunok:

Beste urte batez ere iritis dira jaiak gure herriko kaleetara. Aurtengo jai hauetan herritar guztiei zuzentzen gatzaizkizue euskarak duen egoera latzari buruz aditzera emateko.

Euskal Herri osoan ari gara pairatzen hizkuntza eskubideen urraketak. Talde honek Nafarroako Gobernuak euskararekin duen jarrera gogorki saltzen du. Gobernuak ez du etsitzen eta etengabean erasotzen du gure hizkuntza. Horregatik garaia dugu honi aurre egiten hasteko eta gure hizkuntza errespetatu desátela esateko. Denok hizkuntza eskubideak baititugu, eta hori bete dadin gurea dena defendatzeari ekingo diogu.

Modu asko dago honi aurre egiteko, eta hauetako bat Nafarroako Administrazioari planto bat egitea izan daiteke. Herriko talde eta erakunde batzuk hasiak dira planto moduko hau aurrera eramaten. Ekintza hau erdaraz datozen idatziak beraien jatorriara bueltatzean eta hauek euskaraz Vidal ditzaten eskatzean datza.

Beraz, zuek ere berdina egin dezazuen animantzen zaituztegu Euskal Herrian Euskarazetik. Garaia da Euskal Herriko hizkuntza ofizialtasunera bultzatzeko, eta euskaldun guztion ardura dugu hau.

Besterik gabe agurtzen gara eta jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

JAIK EUSKARAZ BIZI!

Leitzako Euskal Herrian Euskaraz

NORK ERANTZUNGO DITU GALDERA HAUEK ?

Denok ezagutzen ditugu eskubideen inguruko aldarrikapenak. Gai garrantzitsua da, inondik ere. Eskubideak, ordea, aldarrikatzeaz gainera bete egin behar dira, eta betetze horretan hutsune nabarmenak gertatzen dira. Horretaz, bi hitz esan nahiko nituzke.

Eskubideak mila modutan sailka daitezke: norbanakoaren eskubideak eta eskubide kolektiboak; arlo publikoko eskubideak eta arlo pribatukoak; eskubide pertsonalak, familiarakoak, sozialak, lan arlokoak, ekonomikoak, ideologikoak, politikoak...

Eskubide horiek guztiak betetzen eta errespetatzen direla bermatzeko araudi zabala dago idatzita: legeak, itunak, kartak...Eta idatzitako arau horiek betearazteko, bestalde, hainbat eta hainbat erakunde edota instituzio daude: mundu zabalean diharduten erakundeak, nazioartekoak, nazionalak, autonomikoak, probintzialak, tokian-tokikoak eta herrikoiak Bakoitzak bere eginkizun, betebeharrak eta lan eremu propioa dauka. Erakunde horiek dira, ustez behintzat, aipatutako eskubideak betearazten dituztenak, eta baita eskubideen urraketak zuzentzen eta zigortzen dituztenak ere.

Orokorrean hitz egiten ari gara, baina ideia hauek herritarren inguru hurbilera ere, gurera, ekar ditzakegu. Gure eskubideak bete eta errespetarazteaz arduratzen direnak eragile sozialak, eragile ekonomikoak, talde politikoak eta udala bera dira, besteak beste. Eginkizun horren inguruan, ordea, gorabehera asko gertatzen da, eta, Leitza gogoan izanda, gorabehera horien inguruko zenbait gogoeta plazaratu nahi ditut idatzi honetan:

- Pertsona oro, inolako diskriminaziorik gabe, eskubide eta betebeharrak dagokien bezala berdina bagara, nola ulertzen da

herritarrok, leitzarrok, erabat bereizten gaituen egoera batean egotea? Nola ulertzen da leitzar batzuek eskubide ezberdinez baliatzeko aukera izatea, beren betebeharrekin, baina beste leitzar batzuek betebeharrak bai baina eskubiderik ez izatea? Zergatik onartu eta mantentzen da pertsona batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako den egoera hau, denok, ustez, berdina bagara?

- Pertsona nahiz talde politiko guztiak gure ideiak, asmoak, proiektuak defendatu eta garatzeko eskubidea baldin badugu, ordezkatzeko, hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea baldin badugu, zergatik ezin ditugu, denok, baldintza berdinetan eskubide hauek gauzatu? Zergatik pertsona batzuek bai eta besteek ez? Zergatik Leitza aukera politiko batzuek bai eta beste batek ez? Ba al dira, bada, besteak baino balio handiagoak ideiak? Edo proiektuak, batzuk besteak baino legitimagoak al dira? Nork ezartzen ditu ezberdintasun hauek? Nork ahalbidetu eta mantentzen du oinarritzko eskubide horien urraketa eta leitzarroi egiten zaigun eraso hori?
- Izatez, udala da herritarren borondatearen oinarritutako ordezkartzaren bidez, leitzar guztion onerako lan egin behar duen erakundea. Auzoen beharrak asetzeko, herritarren nahiak entzun, kontuan hartu eta errespetatzea da bere eginkizunetarikoa bat. Illo horretan, alderdi eta talde politiko guztiak herritarren borondatearen defentsa aldarrikatzen dute behin eta berriz, gehienbat hauteskundeak bertan direnean. Baina askotan hitzak hortantxe gelditzen dira, hitzetan soilik. Zergatik inposatzen digute gaur egungo udal taldeek herriak aukeratu ez duen

TIBURTZIO DONEAREN PESTAK

ordezkaritza? Zergatik bizkarra eman herritar multzo handi baten nahiari? Herritarren adierazpenak ez al du balio? Edo, herritar batzuenak bai eta besteenak ez? Zergatik onartzen da herritar guztien gan eragina duten erabakiak batzuen artean hartzea, eta ez herriak adierazi duen guztien artean? Ez al dago lekurik denontzat "udal" honetan? Noiz arte iraun behar du bazterketa honek? Nola egin daiteke lan herritar batzuei ateak itxi, aukerak kendu eta mespretxatuz? Zergatik eta zertarako mantentzen da errespeto falta hau: herritar batzuk zapatuta egonen badira ere, norberaren helburuak eta egitasmoak aurrera ateratzea errazago izango delakoan?

- Egoera honek irtenbide bat izan dezan, injustizia hau sahiesteko eta berak dakartzan ondorioak gutxitzeko asmoz, hainbat proposamen landu dira; zoritxarrez,

bakar batek ere ez du aurrerapiderik aurkitu. Alde batetik oso triste da, larria, latza,... baina batez ere, ez al da kezkarria, egoera hau konponbidean jarri nahi badugu, ustez antzik gehiena dugun hiru taldeen artean adostasunik ez lortzea oinarri-oinarrizkoak diren urratsak emateko garaian?

- Kezkagarria izateaz gain, ez al da esanguratsua ere herritarron nahia eta hitza errespetatzeko borondaterik ez agertzea? Non daude behin eta berriz aitortu diren konpromisoak? Ez al da benetako pauso praktikoak emateko garaia? Edo ez dugu gaitasunik? Ala... borondatea da falta dena?

NORA OTE GOAZ BIDE HONETATIK!!

MARIAN ZESTAU

Elduaíen

Martín José Iraola Etorbidea, 8 - 3º izda. • Teléf. / Fax. 943 67 00 52 • Tolosa

Kondeko Aldapa, 30 • Teléf. / Fax. 943 67 47 33 • Tolosa



Pablo Mutiozabal, 2 - 1.º planta • Teléf. / fax. 943 37 27 81 • Lasarte

Nafarro Etorbidea. 12 • Teléf. / Fax. 943 65 01 77 • Tolosa

Villa Itxas-Lore

Avda. Infanta Cristina. 15 (Ondarreta) • Teléf. / Fax. 943 31 07 53 • S. Sebastián


Elbarrena Auzoa, 20 • Teléf. / Fax. 948 51 06 35 • Leiza (Nabarra)



Hizkuntz Eskola
Academia de Idiomas
Elduaíen
School of Languages

With compliments and many thanks

- Elduaíen hizkuntz eskolak ingeles ikastaroak eskeintzen dizkizue oso kualifikatuak eta esperientzi duen irakasleekin.
- 25 urtetako irakaskuntza ondoren, hizkuntz bat ere labur batean ikastea proposatzen dizuegu, era atsegina eta arin batetan, ikaslearengan gogo eta interes handi bat eraginaz.
- Ikasleak beren azagueraren arabera maila desberdinetan banatuak izaten dira.
- Azterketa ofizialak gainditzeko prestatzen dugu, adibidez:
 - Hizkuntza eskola ofiziala - First certificate, pet advanced eta proficiency -
 - Trinity collegeko examinak.
 - Britaniar, alemaniar merkatal kamarak, etab.
 - Amerikar unibertsitateak, Toefl.
- Entrepresetarako klase bereziak.
- Haurrentzat klase bereziak (6 urtetik aurrera).
- Elduaíen hizkuntz eskola zuen eskuetan geratzen da edozein kontsultarako.



LEITZA GARAJEA NEKAZARI TAILERRA

Ta denok kategoriko pestak pasatzen ditugun

Amazabal, 29 - Telf. 948 51 04 66 - LEITZA
Elizaren atzealdean - Telf. 943 68 35 42 - BERASTEGI
ALFONSO EL BATALLADOR 3 - Telf. 948 27 97 02

% DIA SUPERMERKATUA OKABIO KAFETEGIA

Pesta goxoak opa dizkizue

LANDA INDUSTRIALDEA - Tel. 948 510 731

OIALDE TABERNA

- BAZKARIAK, BAZKALURREKOAK ETA OTARTEKOAK
- KAFEAK, ARDOAK ETA LIKOREAK

Dai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 00 77 LEITZA



Astiz Anaiak

Zurgindegia

*Klase guztietako egur lanak,
ateak, lehioak, tarima,
armairuak eta kristaldegia.*

Tel. 948 610606 / 948 510285

Pesta on onak, pasa ditzazuela.

IMELDA LARRAZ

Estankoa, janari denda etabar.

Dai zoriontsuak opa dirkizue

PLAZA AUTOESKOLA ASEGURUAK

Pesta onak pasa ditzazuela

Huarte Gotzaia, 8 - LEITZA
Tel. 948 51 03 38

LEITZELARREA, S.L.

Aroztegia, metal zurgindegia (ateak, barandilak,...)

Landa Poligonoa, Tel. 948 51 05 98

31880 LEITZA

Dai zoriontsuak opa dirkizue

GARZIARENA ARRANDEGIA

Eguneko arraiak

Dai zoriontsuak opa dirkizue

Eibarren, 72 • Tel. 948 51 05 90 • LEITZA

BIKOITZ TABERNA

PINTXOAK • OTARTEKOAK
PASTELAK • TARTAK
ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU

Eibarren, 16 • Tel. 948 51 00 72 - LEITZA

Dai zoriontsuak opa dirkizue

EROSLE SUPERMERKATUA

Dai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 00 07 - 948 61 06 57 • LEITZA

LEITZA ERAIKUNTZAK

Dai zoriontsuak opa dirkizue

Patxi Arrazola, 14
Tel. 948 61 09 27 - 948 61 09 34



LEIZA
MANDRILADORA

Eluseder Pol. Ind. - Tel. 948 51 06 00 - 948 51 06 01
Faxa 948 51 06 02

Dai zoriontsuak opa dirkizue

TXOKO TABERNA

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dirkizue



FOTO ULAZIA

Sta. Cruz, 43
Urbanización Zizur
Tel. 948 18 33 01

Jai zoriontsuak opa dirkizue



ADUR
TABERNA

- Otartekoak ogi beroarekin
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak:
 - Olagarroa
 - Grabak
 - Ziztorra sagardotan

Elbarren, 16 - LETZA
Tel. 948 61 08 64

Jai zoriontsuak opa dirkizue

LOCAL SOCIAL MENDIGORRIA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Patxi Arrazola LEITZA

ULI-ZAR ELKARTEA, S.L.

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEAK

Bide onde etxea, ARESO • San Miguel, 2 - LEITZA
Tel. 948-510153 - 610682 • Mugikorra: 689-701557
Larrialdiak: 948-271020



Eibarren, 15
Tel. 948 51 01 46
Fax 948 51 01 46
LEITZA

PRENTSA • TESTU LIBURUAK • OPARIAK
PLASTIFIKATZEAK • ENKUADERNATZEAK
INPRENTA LANAK • FOTOKOPIAK

Jai zoriontsuak opa dirkizue

GASOLINERA DE LEIZA

VDA. DE RAFAEL MUGICA

Teléfono 948 51 00 57

LANDA TABERNA



Jai zoriontsuak opa dirkizue

LEITZA

RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA



RENAULT zerbitzua

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 02 59 Elgoien kalea, 15

SAGASTIBELTZA ETA ARTOLA ERAIKUNTZAK

Era guzitako igeltsero lanak
Elbarren 86, 2.º ezker
Tels. 948 51 02 65 - 948 61 07 24
Jai zoriontsuak opa dirkizue

BIOK JANTZIAK

Gizonezko, Emakume eta
Umeentzako jantziak

Elbarren. 32 • **LEITZA**
Tels. 948 51 05 58 - 51 04 77

ARIZTIMUÑO ANAIK ERAINKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak
Jai zoriontsuak opa dirkizue

Telf-ak 948 51 02 eta 948 51 03 74
LEITZA

IZOZTUEN ETXEA CASA DE CONGELADOS

AMPARO ETA KATI
Especialidad en croquetas, pimientos rellenos y
mejillones. Precocinados, mariscos y verduras.

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Elbarrén, 80 • Tel. 948 61 08 85 • 31880 **LEITZA**

JOVIZU S.L. EMBALAJES

Pesta onak opa dirkizue

Leitzelarreko errepidea, 1. km.
Tel. 948 51 00 53

J.M.HERNANDORENA

BURDINDEGIA - GARBIGARRIAK
OPARIDENDA - GARRAIOAK

Pesta onak opa dirkizue

Tel. 948 51 00 55

JOSE IGNACIO ARZALLUS

Harategia - Urdaitegia
Etxeko txistorra

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 03 77 LEITZA
Tel. 948 68 30 42 BERASTEGI

ORAIN ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dirkizue
herritar eta bisitari guztiei

LEITZA

Egurki Uleapaindegia

Asun eta Lidia

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Elbarren, 34 - 1. A
Tel. 948 61 06 49 LEITZA (Nafarroa)



POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

AISLAN - LEITZA, S.L.

TELF. 948 51 07 17 - MUGIKORRA 689 800 371
LEITZELARREKO ERREPIDEA, 6 - 31880 LEITZA



C/ Elbarren, 36-3° B - Tfno. 948 51 06 94 - 31880 **LEITZA**

TALLERES LAZCANO

Venta y reparación de todo tipo de automóviles,
maquinas agrícolas, bicicletas y motos.

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Gorritarán, 41 • Tel. 948 51 04 04
LEITZA

TROK

-ZAPATA KONPONKETA
-LARRUGINTZA

Ongi pasatu, asko dantzatu
eta zapatak gastatu

San Jose plaza 5 LEITZA



VANPAC, S.A.

(Vasco Navarra de Papel y cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA


Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tolosako errepidea, 2 Km-an
Tel. 948 51 01 61

JUBILATUEN TABERNA

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

Tel. 948 61 09 35



MANTENIMENDU PREDIKTIBOA

INDUSTRI MAKINERIAREN
MONTATZE ETA KONPONKETA


Jai zoriontsuak opa dirkizue

LANDA INDUSTRIALDEA - PAB. 9B, 10B
Tel. 639 134464 - 629 831535 - 629 823191



TORREA ETXEA

Tfnoa.: 948 61 09 09
GOSARI, ETA AFARI,
EDERRAK




EUSKAL MARTXA
ETA BORROKA
ERREPRESALIATUAK
AHAZTU GABE



G@ZTETXO

ZIBER- GUNEA
EIBARREN 16 LEITZA TEL. 948510741

INTERNET@
JOKOAK-SAREAN
JUEGOS EN RED



ESKANERRA



IMPRESORA

BIDOKONFERENTZIA



Era guztietako elektrizitate lanak
LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLARI 628 725 397 David

Jai zoriontsuak deno!!!



ZURGINDEGIA
ATEAK, LEHIOAK, TARIMA ETA
BESTELAKO ZURGIN-LAN GUZTIAK

GOIKO ERROTA • ☎ 948 510402 • Mugi.: 609 067123

Pesta onak pasa

LOREA

Ileapaindegia
eta Solarium-a
*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

Tel. 948 61 09 07 - LEITZA

JOSE MARIA ETXEBERRIA

GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA

Jai onak opa dirkizue

Tel. 948 51 02 82 • LEITZA

KORNIETA ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

LEITZA



*Sucesiones de
José GOMEZ, S.L.*

*Jai Zoriontsuak
opa dirkizue*

OIHALAK - TEJIDOS

C/. Ergoien, 30 • Tel. 948 51 01 30 • 31880 LEITZA



URTO KARROZERIA

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK

Jesús Azurmendi Jauregi

Jai zoriontsuak opa dirkizuegu

Kamineros etxea BERASTEGI

Telf-ak. 943 68 34 99 - 948 61 06 64

BEATRIZENEA



TABERNA-JATETXEA

- menua
- otarfeokak
- kaxuelitak
- pintxoak

Mikel Deuna, 2 - Tel. 948 510 991 **LEITZA** (Nafarroa)

MERTZERIA DENONTZAT

Jostun tresnak, galtzerdiak eta
azpiko arropa

Pesta onak pasa ditrazuela

Tel. 948 51 05 61 • LEITZA



ARDI-GAZTA

Gorritz

*Pesta alaiak pasa ditragun
errepresaliatuak gogoa ditugula*

XABIER SESTORAIN • GORRITZ BASERRIA • LEITZA 948 51 05 70

PERITZA TABERNA

Pesta onak pasa denak

Eibarren 23 - Tel. 948 610 848 - LEITZA



Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Dai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 948 510 747 / 948 510 467 - LEITZA

DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA - CITROEN AUTOAK - GRUA ZERBITZUA



Eluseder Industrialdea
Poligono Industrial Eluseder

Telefonoa 948 510 610
Faxa 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak • Aurrekontuak
Berrikuntzak • Obren kontrola
Lur neurketak • etc.

TELEFONOAK

BULEGOA : 948 61 06 77
MUGIKORRA: 629 61 19 12



Gustua baduzu, hementxe gaituzu

Alto de Leitza • 31877 LEITZA (Navarra)
Tel. 948 51 01 25 • Fax 948 61 09 65

Cocina selecta - Comidas de empresa
Bodas y banquetes - Comuniones y bautizos
Amplios comedores - Salones
Amplio parking - Piscina

"GARBI"

Garbigaidenda
eta Usaidenda

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

Tel. 948 51 01 73

LIZARRAGA

HARATEGIA

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

Tel. 948 510 283

ARAKINDEGIA

JATETXEA

Tel. 948 51 00 52

Fai zoriontsuak opa dirzikizue



PRENTSA
TESTU LIBURUAK
OPARIAK
INPRENTA LANAK
ESKOLAKO GAIAK

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

Elbarren kalea

Tel/Faxa 948 510 262

GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

Elgoien, 22 LEITZA

GAZTAÑAGA TABERNA

Otarteakoak, pintxo beroak, kaxuelak

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

Tel. 948 61 07 08

CONSTRUCCIONES OLIVEIRA-VICENTE

Les desea felices fiestas

C/. Amazábal, 17 - 3.ºB

Tfno.: 948 51 05 16

LEITZA (NAVARRA)

PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia

Tel. 948 51 01 64

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

HERBODIETETICA BELARRA

Estetika zerbitzua

Elbarren, 35 • Tel. 948 51 01 92

LEITZA

Fai zoriontsuak opa dirzikizue, zorionak

Pinturas MELO

PINTURA GENERAL

Tel. 948 51 05 35 - LEITZA

Fai zoriontsuak opa dirzikizue

ARDOTEGIA
LENTZ

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA INSALUS, SAN MIGUEL
GARAGARDOA ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Tel. 948 51 03 33



BANCO DE
VASCONIA

*Leitzar eta bisitari guztiak
pesta goxo batzuk pasa ditzaizuela*

Tel. 948 51 01 35 LEITZA

**EXCAVACIONES
JOARBE S.L.**

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

Obispo Huarte 8
Tel/Fax.: 948 61 09 71
Mugikorra: 629 21 90 68

**TXAPA PINTURA LEITZA
KARROZERIA**

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa
eta labean egindako lehorketa, kolpe haundien
konponketa (bankada).

Leitze - larreko errepidean LEITZA
Tels. 948 51 04 60 - 948 51 05 58 (Etxekoa)

**ETXE-TRESNAK S.L.
ELEKTROGAILUAK**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

*Jai zoriontsuak opa
dirkizue*

TEL. 948 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA



**MUSUNZAR
OSTATUR
JATETXEA**

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

Eibarrer Kalea, 14
948 51 06 07 948 51 04 15
LEITZA (Nafarroa)



**SAGASTI
JATETXEA**

SAGASTI

TABERNA ETA JATETXEA

Gosariak, kaxuelak,
ogitartekoak

Bazkariak eta afariak
Tel. 948 61 06 37 LEITZA

Jai zoriontsuak opa dirkizue

BITXILORE LOREDENDA

LORE NATURALAK, LEHORRAK,
EZKONTZAK, KOROIAK, ETAB.

Jai zoriontsuak opa dirkizue

Eibarren 59 - Tel. 948 510 654 - LEITZA

BULDAIN


AGENTZIA INMOBILIARIOA

*Festa eder hauetan zuen nahiak
bete ditzaizuen opa diruzet*

Telefona 948 51 05 34 Amazabal 37, behea
Tel. mugikorra 649 47 66 15 LEITZA

Pagozelay

construcciones



ERAIKUNTZAK • HERRI LANAK

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

LANDA INDUSTRIALDEA • LANDA ETXEA 1 SOLAIRUA
31880 LEITZA • NAFARROA
TEL. 948 510 346 • FAXA 948 610 962



OKINDEGIA - GOZOTEGIA

EGYZKITZA



B.º Erreka, 3 bajo - Telef. 948 51 06 14 LEITZA
Elbarren, 35 -Telef. 948 61 06 46 LEITZA
San Frantzisko, 24 - Telef. 943 65 00 41 TOLOSA

**ILEAPAINDEGIA
ARANTXA**

*Jai zoriontsuak
opa dirkizue*

Obispo Huarte, 8 tfno. 948 61 09 31
31880 LEITZA (Navarra)

TXARAGORRI



ITURGINTZA
FONTANERIA

Elbarren, 56
(Martikonea)


Leitza. Mobile
649 853 440

SARADOTEGIA-SIDRERÍA

BRREKA



B.º Erreka - Telf. 948 51 06 25 - **LEITZA** (Navarra)
(Estamos a la salida de la autovía dirección Leitza)




MARGARI

Teléf. Móvil 608 87 30 16
Teléf. Domicilio 948 61 07 01

Ɖai zorientsuak opa dirkirue

Taxia 24 orduko Zerbitzua
Servicio de Taxi 24 horas

31880 LEITZA (Navarra)




NAFARROAKO RURAL KUTXA CAJA RURAL DE NAVARRA

Pesta onak pasa

LEITZAKO BULEGOA

ELBARREN, 35

Faxa eta Telf.: 948 60 735



GORRITZ
ERAIKUNTZAK · ESKABAZIOAK

LEITZA (Navarra) TLF: 948-510 140 / FAX: 948 510 996

Gora Leitzako pestak!!



Grupo Tanatorio Taldea

IRACHE

Maldarreka S.L.
Leitzako Belatokia

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

TEL. 948 63 74 04 · 628 03 02 90



Distribuciones **ARRARAS** S.L.

EDARI BANATZAILEA

Viña Alcorta, Keler, Kas, Patxaran La Navarra
Polig. Ind. Eluseder - ARESO (Nafarroa)
Tel. Oficina 948 61 08 88 - Almacén 948 51 05 99

Hizkuntza hazia
mintzoaren lore
zazpi itxura eta
hamaika kolore.

Bizi nahian gabiltza
milaka landare
gure baratzakoa
al zara zu ere?

J.Sarasua

LEITZAKO EUSKALTEGIA

Tel. 948 610 776



FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata

FISIOTERAPEUTA

- ERREHABILITAZIOA
- OSTEOPATIA
- KIROL ETA ZIRKULAZIO
MASAIA
- ERDITZE AURREKO /
ONDORENGO TRATAMENDUA
- MUTUAK
- ASEGURUAK
- PARTIKULARRAK

Ongi pasa San Tiburtzioak

948 510 730

Uharte Gotzaia 8-3. C - LEITZA

HYDRA  **GESPORT**
gestión deportiva



LEITZAKO KIROLDEGIA

LEITZAKO UDALAK PESTA
ONAK OPA DIZKIZUE




PESTA ALAIAK

OPA BITARTEAN,
GURE ERAKUSKETA
IKUS DEZAZUN
KONBIDATZEN ZAITUGU



IKUSTAZU OBRAN HASI
BAINO LEHEN
ZURE KOMONAREN
PROIEKTOR
ORDENAGAILUAN!



ITURGINTZA LANAK
KALEFAKZIOA ETA GASA
KERAMIKA

gaztelu

